

2013KO AZAROAREN 7KO OHIKO OSOKO BILKURA:

2013ko azaroaren 7ko Ohiko Osoko Bilkuraren akta onartu ondoren, batzar horretan onetsitako ebazpenen laburpena eman da argitara:

1.- 2014KO AURREKONTUA, PLANTILLA ORGANIKOA ETA LAN EGUTEGIA HASIERA BATEZ ONESTEA.

2014ko aurrekontua eta hura gauzatzeko oinarriak hasiera batez onestea ebatzi da. Hona hemen onartutako aurrekontua, kapituluka laburturik:

GASTUAK

1. kapitulua- Langileria gastuak: 623.850,30 euro.
2. kapitulua - Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak: 1.001.400,00 euro.
4. kapitulua – Transferentzia arruntak: 666.646,64 euro.
6. kapitulua – Inbertsio errealak: 101.700,00 euro.
7. kapitulua – Kapital transferentziak: 191.600,67 euro.

Gastuak guztira: 2.585.197,61 euro.

DIRU SARRERAK:

1. kapitulua - Zuzeneko zergak: 1.475.060,00 euro.
2. kapitulua - Zeharkako zergak: 120.000,00 euro.
- 3.- kapitulua - Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru sarrera batzuk: 117.620,00 euro.
4. kapitulua – Transferentzia arruntak: 592.530,00 euro.
5. kapitulua - Ondarezko diru sarrerak eta herri aprobetxamenduak: 5.383,11 euro.
6. kapitulua - Inbertsio errealak besterentzea: 129.604,50 euro.
7. kapitulua – Kapital transferentziak: 145.000,00 euro.

Diru sarrerak guztira: 2.585.197,61 euro.

Jendaurrean egoteko epea iraganik, aurrekontua behin betiko onetsi zen, eta horri dagokion ebazpena Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eman zen argitara, abenduaren 17ko 241. alean.

2. 2013KO AURREKONTUAREN ALDAKETAK ONARTZEA

2013ko ekitaldiko aurrekontuaren aldaketak hasiera batez onestea ebatzi da.

GASTUAK

a) Kreditu bereziak:

1. kapitulua: 105.000,00 euro.
6. kapitulua: 42.200,00 euro.

b) Kreditu gehigarriak:

1. kapitulua: 55.000,00 euro.
2. kapitulua: 80.000,00 euro.
6. kapitulua: 3.600,00 euro.

Aldaketa guztira: 285.800,00 euro.

FINANTZIAZIO ITURRIAK:

a) Diruzaintzako soberakina: 155.900,00 euro.

b) Diru sarrerek sortutako kredituak:

4. kapitulua: 30.900,00 euro.

c) Ezeztatzeagatik emandako bajak:

2. kapitulua: 99.000,00 euro.
Aldaketa guztira: 285.800,00 euro.

Jendaurrean egoteko epea iraganik, aurrekontua behin betiko onetsi zen, eta horren ebazpena Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eman zen argitarara, abenduaren 17ko 241. alean.

3.- ALKATETZARI EMANDAKO BAIMENA, 0-3 URTE BITARTEKO HAUR ESKOLEKIN SINATUTAKO HITZARMENA BESTE UDALERRI BATZUETARA ZABALTZEKO

Haur eskolak finantzatzeko xedez Iruñeko Udalarekin sinatu zen hitzarme^ona halakoa eskatzen duten udalerrietara zabaltzea ebatzi da. Horri jarraikiz, Zendeako haurrak joaten ahalko dira beste udalerrri batzuetako haur hezkuntzako lehen zikloko zentroetara. Galarko Udalak bere gain hartuko du Udalari dagokion modulua portzentajea. Hitzarmen berean Galarko alkateari eskumena eman zaio hitzarmen horiek sinatzeko.

4.- KONTZEJUEI EMANIKO DIRU LAGUNTZAK

Ondoko diru laguntzak ematea ebatzi da, jarraian agertzen diren obregatik:

- a) Olazko Kontzejua.- 35.429,03 €-ko diru laguntza eman zaio pilotalekuren ondoko biltegia eraikitze obregatik.
- b) Cordovillako Kontzejua.- 56.811,56 €-ko diru laguntza eman zaio, Cordovilla Goienara sartzeko bidea zabaltzeko eta hobetzeko obregatik.
- c).- Ezkirozko Kontzejua.- 39.47903 €-ko diru laguntza eman zaio, honako obra hauek egiteagatik: behe tentsioko aireko sarea lurperatzea, Kiroldegiko aparkalekua, Izurako Pasealekuko obrak eta Elortz ibaiaren ibilgua hobetzea.

5.- EZKIROZKO KIROL INSTALAZIOEN KONTRATUA BERRITZEA

Ezkirozko kirol instalazioak kudeatzeko kontratua 2015eko otsailaren 28a arte —hura barne— lutzatzea ebatzi da. Izan ere, egundaino Galarko Udalak SERVICIOS DE ACTIVIDADES FISICAS URDI SL merkataritza sozietatearekin sinatu du kontratua.

7.- ZANGOZAKO MERINDADEKO UDALEK PRESTATUTAKO LEGE EKIMENA, HORREN BIDEZ PRESTAZIO ETA ESKUBIDE BATZUK ARAUTZEN DIRA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO LADA-EREMUKO HERRITARREK KALITATEZKO OSASUN ZERBITZUAK IZAN DITZATEN.

4/1985 Foru Legeak, martxoaren 25ekoak, xedaturikoari jarraikiz, Zangozako Merindadeko Toki Entitateek bultzatutako Lege Ekimena sustatzea ebatzi da, horren bidez eskubide eta zerbitzu batzuk arautzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko landa eremuetako biztanleek kalitatezko osasun asistentzia izan dezaten. Era berean, hartutako erabakiaren berri eman zaie herritar guztiei.

7.- ARLEGIKO KONTZEJUARI JARRITAKO BIRJARTZE ERREKURTSOA, DIRU LAGUNTZEN GAINEKOA.

M.D.J.L.T-k jarri du errekurtsua, Osoko Bilkura hauetan hartutako ebazpenen aurka: 2012ko azaroaren 8koa (horren bidez 10.994,80 €-ko diru laguntza eman zitzaion Arlegiko Kontzejuari, zuzenbide gastuak ordaintzeko) eta 2013ko abuztuaren 30ekoa (horren bidez zuzenbide gastuak ordaintzeko diru laguntza ematea ukatu zen). Beraz, 2012ko azaroaren 8ko Osoko Bilkurari

ezarritako errekurtoa aintzat ez hartzea ebatzi da —diru laguntza indarreko legediari jarraikiz eman baitzen—, baita 2013ko abuztuaren 30eko Osoko Bilkurari jarritako errekurtoa ez onartzea ere —errekurtoaren helburua ez da izan ebazpena baliogabetzea, atzitik, horren xedea da erabakiaren arrazoa aldatzea. Beraz, errekurtoa ez da onartu, jarduketak kontserbatzeko printzipioari jarraitu behar baitzaio eta errekurtoan ez baitago administrazio jarduketa baliogabetzeko benetako borondaterik—.

8.- ETXEBIZITZAK ERAIKITZEKO ETA/EDO ZAHARBERRITZEKO DIRU LAGUNTZAK

Hurrenez hurren, I.G.G-ri eta M.A.G.A-ri 2.021,85 € eta 250,01 €-ko diru laguntza ematea ebatzi da, beren etxebizitzetan eraikitze eta/edo zaharberritze obrak egiteagatik. Izan ere, 1996ko ekainaren 29ko Udal Ordenantzari jarraikiz eman da diru laguntza (Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 1996ko irailaren 30eko 119. zenbakian, argitaratu zen).